

# Mormonen ibillaldi luzea

AITA ONAINDIAK

## Bidez bide gizon bi

Bidaldi luzea ta latza, lenengo mormonentzat, amerikar Sartalde bideetan zear. Jaurtiak izan ziran andik eta emendik, euren profetaren zaintzapean bide luzeak urratuz. Gizaldi lauren bat iraun eben ortara. Andik eta emendik aizatuak, bizileku bat aurkitu eben eremuan. Gatz-Zingira eritxona (Salt Lake), eta auxe izango da euren alatz-uria.

1847'ko garagarrillaren 24'an, amerikar Sartaldean gizaseme bi, ibilliaren ibilliz ler-eginda, jatziz datoz Arkaitz-mendietako erripa bera. Zaldian dator bata, aren atzetik oiñez bestea: biak ez dabe zamari neka-nekatu bat besterik. Eta zer! Euren begien aurrean zabaltzen da, ikus-alean, Gatz-Zingira Aundiaren ur-aska zabala. Basamortu ikaragarria, bertan eguzki galdatak sabei ta zauri-bedarrak erne ta azten bakar-bakarrik. Gizaseme traukil arlote areik, beraz, zoriontsu dira. Begira or

agindu jaken lur santua! Itsuak ala bakar-zale zoroak ete? Zeren billa dabiltz Sarkalde Aundi aretan? Labur, mormonak dozuz!

Orson Pratt edo Erastus Snow dira emakume, gizaseme ta umeak osoturiko talde amaibako baten aurrelari. Sortaldetik urtenak, illabete luze askoren buruan, gorriak ikusita, egundo ibilli bako lekuetan zear ibilli ta ibilli, eurak al izango dabe azkenez, etsaiergandik eta alkar eroan-eziñetik urrun, amasa ta atsedena artu. Euren azken karta jokatu eben "azken egunetako Santuak". An urriñago Pazifik itxason, atzean geratzen dira etxeak erre ta lurrak ostu eutsezan arenioak. Ez dabe besterik, aurrean darabillezan borroruak eta barruan daroen fedea. Euren ibillaldia da, indiar erriaz batera, amerikar istoriak dauan latzena; alan eta guzti, ementxe daurki azkena, ezer bali ez dauan lur lantzar ixil onetan. Mormondar sakabanatuak ementxe

...dago dabe eremu au irabazi ta  
...ezten.

### Uria

1984'ko garagarrillean, Gatz-Zingira Uria (Salt Lake City). Arkaitz-men-  
ak besarkatzen dabe magalpe go-  
... Amerikar zeru zabalak edatzen  
... bere suzko azken izpiak Utah'ko  
... buru gain, mormondarren mundu-  
... uri nagusi gain. Giro baketsua,  
... kaitik uriko ateetara doan bi-  
... bama. Bedar ebagi-barriaren sunda,  
... ta landak kulunkaz aizearen era-  
... mosuz. Uri osasuntsua oso: 1.200  
... gogoz gu. Ertzez-ertz arbolaz  
... itako ibilbide luze artezak, or-e-  
... kurutzatuak. Etxeak zuri geienik,  
... etxeak apain gaur-egunetako egi-  
... azken oiuko denda ta biltokiak.

Otoitz-lekuak badau garrantzirik;  
bertako elizak zuzen-azten bai ditu  
besteak bere arkitektura bereziaz. An-  
dik doaz kale ta ibiltoki guztiak zuzen  
be zuzen. Onek ebagi daroa uriaren  
edertasuna, mormondarrai dagokien  
erazko espiritua gogorazorik: Santuen  
elizak ez dau ezer zer gerta izten, "ida-  
tzirik dana dago-ta", Joseph Smith  
igarleari egindako goi-iragarpen os-  
tean.

Etixerik aundi ta goienaren oiñean,  
au da, mormondar elizaren alboan,  
iturritz ta loraz jantzitako parke bat  
daukazu. Orren goi doan eragi au sin-  
bolu da, goiburu bat: Gatz-Zingira  
Uria, mormondarrentzat Meka lez do-  
zu, ona bait datoz mundu guztitik 5  
milloi erromes.



*Salt Lake City: mormonai agindu jaken lur santua.*

Mormondar eliz-jarrailleak dira ikerlerik geientsuak, baiña mormondar ez diran askok be amaxe jo oi dabe euren aurretikoen amasa billa. Eliz ontan dago Utah'ko etorki Alkartea eta omentxe daukagu 1894 ezkeren, fitxetan ipiñita, mundu-mailan, urteko ta aurreko leifuak, gibel-ondorioz eurak bateatu al izateko, Izugarria bene-benetan! Lau pisutan, 12.250.000 mikro-filmak, berrogei izkuntzetan, ardurak dabe ara doazen ikerleai entzun-azo ta onura emoteko. Leku aretan, jakin-naia dozu nagusi; bertara egunero 2.500 persona eltzen dira gitxi goyabera; mikro-filmek konsultatzen dabez eta opa dabenez ziurpetu, ikerle bakotxaren eskuetan jarten dabean eun eta berrogetamar ikus-gailluri esker. Olan etorki billa doanak errez idoro dauke amaseigarren gizaldiraiko igonik. Alkarteko idazkariak, bere aldetik, best milla karta erantzun bear ditu egunero.


Fitxak, ostera, errialde diferenteetatik, mormondar taldeak erri-artxiboak ikusi ta jasotako datuakaz bete oi dabez. Orretan arduratzen diranak diñoenaz, izen batze au zergaitik dagien aitzren emoteko, ildako guztiak bateatzea gura ei dabe. Dudamudan ipiñi daiteke errialde batzuetako ikerketak eta izen-batzeak, leenagoko garaietan, erri askotan beñik-bein, olakorik ez idatzi ez kontutan artu egiten etzalako. Lan au, alan eta guzti be, naitaezkoa ta beñila da mormondarrentzat; argi dago au; Gatz-Zingira ortako uritik ur-samar mendi baten saietsean dagoz, "oroipen" onen idazki jator batzuk,

oraiñarte gordeta eukiak, Utah'ko jatorri Alkartek fitxetan ipiñitako guzdiaren oroitza noski.

Ikustera datozenak Gatz-Zingira ontako Urian ez dabe eurretarren atarna ez asko ez aundirik aurkituko, eliz ederra kenduz gero. Laterri Baretan gagoz eta emen etxeak eta abar atertu barik barriztatuz doaz; amenkar beste uritan ez legez, baiña, Gatz-Zingira Uriko jentea alai ta jolaskot doaz 200.000 biztanle ditu, jente aberatsueratsu ta arrotz-zalea. Emengo kondairarik jakiteke ona datorren bidaiariak ez dau siñistu gura izango, emengo etxe, oroigaillu, zugatzak eta zamañdiak, azken gizaldian ondar-azpiak jaikiak diranik. Uri onen asiera mormondarren istoriaz buztarturik dago; onexek, mormondarrok, lanez ta izerridiz, bildur-ikara gorriak sufridu ondoren, fede ta kemen aundiko, urteetan arat-onat ibilli ta itxaroz, eremu ontan atzenez ipiñi al izan ebezan euren un santuaren azpi-oiñarriak.

### Ibillaldi luzea

Nun sortu ete zan ibillaldi on? 1820'an dauko bere asiera, an Palmira'n, New York'eko laterrian. Mormondar idazleak diñoenaz, garai atari eta oian barruko landetxe baten, Jainkoa ta Kristo agertu jakozan 14 urteko gazte bati, Joseph Smith'i, euren igarileari. Ikuskari ontatik batez be ez zan mormondarren azia. Alkar joki ebiltzan orduan presbitartarrak, metodistak eta baptistak, Inghlaterra'tik bereziki Laterri Akartuetako Sordaketa etorri ziranakaz.



Joseph Smith, igarlea.

Manchester'ko muiño baten, alan  
eguneko "Santuen"  
profeta Smith'ek aurkitu eban 1827'ko  
irailaren 22'an, ogetalau plaka euka-  
ran-urrezko idazti bat, Mormondarren  
liburua ain zuzen, Biblia bezela;  
1830'an 5 milla aleko argitalpena egin  
zen, baiña onexek egin-egiñean be ba-  
rakeria izugarria sortu eban dotriña  
onen jarraileen eta aurkalarien artean.  
1829'ko dagonillaren 31'an "Tele-  
graph" egunerokoak idatzi eban: "Guk  
ezagutu izan dogun sorginkeria loratze-  
rik aundienak arduratzen dau gure lu-  
raldeko jente talde txo bat". Baiña tal-  
de horrek emon eutsan asiera mor-  
mondar onein istoriari, askok irriz ta  
bariaz artu eben arren liburu au.

Laterri Batuetan aurkitzen gara alan  
beherer egin daikegun egunetan, lau-

tik iru Zuriak oindiño kolonizatu bako  
lurraldean. Sal-erosleak, narru-eizta-  
riak, lur-langilleak, Europa zaarretik  
zori obe billa etorriak dozuz, ames  
aundiz gaintituaz mugak egunetik  
egunera aundiagotzen dirala. Eta  
mormondarrak be mogimentu orokor  
orren zurrubiloan murgiltzen jatzuz.  
Giti dira 1830'an len-batzarlean parte  
artzen dabena, urrengorako askoz  
ugariago egiñik. Urte bete geroago,  
Kirtland-Ohio'an egindako billeran  
euren lenengo "sute"-an bi milla biur-  
tu batzen dira. Beingoan asten dabez  
mixiño lanak. Euren lan santua Indioe-  
tara be zabaltzen dabe; leenengo mixi-  
ñoaldi luze-luzean bi milla ta lareun  
kilometro dagiz Sarkalderantza. Zidar  
barik, zer jana irabazi ta aurrera...

Josep Smith'ek lenengo urteetan  
Ohio'ko iparraldera egiten ditu jarrai-  
llerik geienak, Kanada'ko muga ingu-  
ruan ain zuzen. Erie zingira ertzean  
dagoen Kirtland gertatu zan mormon-  
darren ardatz; arazoak zirt eta zart era-  
bagi ta aurrera doa igarlea Ohio'ko  
kolonietan tokia artu nairik, lurra  
landu barik eta erritzake dagozanetan.  
"Missouri'rantz jo bear dogu —di-  
ño—, Jaunak iragarriko bait dausku  
Sion barria nun eregi". Eta arako bi-  
dean jartzen dira asko, burdiz, zal-  
di-orgaz eta beste ibil-tresnaz milla ta  
lareun kilometro olantxe egiñik. Ibili  
bako lurraldea, eremu dozu geiena, ez  
biderik ez etxerik bagea. Aurrera egite  
neketsua, baiña danak onartua. Istori  
zalapartari baten asiera besterik ez da  
berau, guztiak ontzat artzen dabena.

“Gizadiaren etsai nagusiak”


Independence uria, 1831'an, muga ondoko erri txiki bat zan bakar-bakarrik; bertan ebiltzan ara ta ona tratulari, narru-erosle, eiztari ta Sarkaldeko “gogorak”, bira-biraka jasotako ogei bat etxaldetan. Mormondarrak ara el-tzean aldatu egingo toki aren itxura. Urte bi barru, milla langille egokitzen dira etxe nasai aundietan. Lursail aundi ederrak eroanez, alkarrekin bizi dira; alkarren artean dagiez euren erosketak; ez dira ezkontzen euren odolekoakaz ezik. Irarkola bat jarri dabe, eta bertan ateraten euren eliz-orria “Arras-ti ta goiz Izar” deritxona. Labur, indarra osotzen dabe, moral ta ekonomi indarra, bertakoak begi txarrez ikusia. Lur-banaketak zirala-ta, izan ebezan euren atsekabe ta burrukak.

Onak, alan be, eztanda zaratatsua egin eban 1832'an. Epaillaren 24'an estu artua izan Smith bere etxean, gabaz; eraso ondoren azpiratu, arpegia baltzitu eutsoen, eta lumaz jantzi, oiturazko erri “justiziak” eskatzen ebanez. Artzain protestante batek, Finnis Ewig'ek liburutxo bat idatzi ta argitaratu eban, eta bertan au iñoan: “Mormondarrak ditugu gizadiaren etsai nagusi, eta deuseztatuak izan bear dabe”. Batzarratan be onan salatzen ebezan: “Nagi ta griñatsuak dira, alper utsak, beiñola lez Jainkoaren apostolu ta profetak bete nai ebezan mirari ta arrigarrietan dabilzanak”. Ereje batzuk, beraz. Ez dira gaiñera jopu ta esklabu zaleak. Oben astuna zan au, Banaketa guda eritxona oraindik erabagi barik egon-eta. Laterri batzarretan eta enpa-

rauetan jopu aurkakoak eta aldekoak zalapartan ebiltzan. Missouri'koak joputasunaren aldekoak ziran. Mormondarrak, barriz, ez diño ezer auzi ortaz; eurak ez daukie jopurik, morroi-rik, eurenak jarraitzaille dira. Ortan ez eben zer-ikusirik, eurak euren erlejiño barria bizi dabe, eurak aurrera jo nai dabe ezeren kezka barik. Eurak “beste batzuk” dira.

Mormonak be, baiña, gizarte urratuan sarturik bizi dira, gizarte burrukalarian dagie euren kondaira. Eta gizarte orretan, ekonomi, erlejiño, erraza artu-emon eta abarretan, ainbat lan egiñagaitik, ez dira ulertuak, eurak mormondarrak dira, gitxi-etsi ta alborra itxiak. Zergaitik, baiña? Ez dabe alkool-gauzarik edaten, ezta erre be. Alan be, bein, Smith profeta goi-argitua zalarik, 1842'an “poligamia”, andrazko asko artzen asi ziran; jarduera au, barriz, etzan ondo ikusia Ameriketan, emakumezkoak gizonezkoak baiño geiago zirala-ta, sartua izan arren.

Urte benetan latz-gogorak 30 ta 40 arteko urteak. Gitxik onartzen ditu. Ez dakie eurak be zer orduko jokabideaz. Independence lurraldea iztera doaz 1838'an. Urrillaren 31'an naste ikaragarria sortu jake uste gaberik, Sarkalde guztian: etxeetako teillatuak austu ta etxe-bizitzak ondatu dautsez; gizonak makillatu dabez, emakume ta umeak ostera oian-nasarteetan pizti antzera eretsiak izan dira. Latz-ikara da nausi. Baiña mormondarrak ez dagoz atzera egiteko, eta iskilluak eskuan, gogor dagitse erasoari. Baiña aurkalarien aldean gitxi dira ta... amore emon bear.



1846-ko iraila, Nauvoo-Illinois: alde egin-bearra barriz be (Christensen-en irudia).

J. Smith auzitegiz auzitegi erabillia, izenez 1838'ko urtarrillaren 12'an gisi doa zaldiz.

Or-emen ezetsiak, eta nun-naitik partiak, mormondarrak euren ondakinak itxi eta, moltzo errukarran, oial tuboletan bizi izanik, tirri-tarran auziko Illinois estatua eltzen dira; antxe erositzen, 14.000 dolarrekin erositako erositza baten. Lanari emonaz antxe eregiten dabe Nauvoo, "Uri ederra". Antxe eregiten dabe eliza bat be. Orduan urrutiratu dirala dirudi. Azken eraginetako Santuak edertuz doaz euren eguneroko bizimolde, dena ta salerosketak. Atsedan tokia idoro ere? Guzurrea.

Carlin'go jaurleriak agintzen dau J. Smith, Missouri'ko espetxetik igestua arapatu dagiela. Mormondarren bu-

ruzagia giltzape jarria da, gero aske itxia. Bere elizan "profeta aula" dala diño, ernegatzailleak il egin nai dabe. Epaikariaren aurrera daroez mormondarrak, euren ezkontz-austea, poligamia dala-ta.

### Zentzun politiku exkasa


Politika arazoan ez ditugu, ez, oso urtenak. Ekonomi ta diru-kontuan orren aitu ta zuurrak dirala be, ekar leikioezan ondorenai begiratu barik, 1844'ko maiatzaren 7'an, euren profeta ipiñi eben auteskundetan Laterri Batuetako jaurlaritzarako. Euren egiteko berezia Ebanjelioa zabaltzea zan arren, auteskunkanpaiñan be otsa atera nai izan euskuen, euren eritxi ta ideiak zabalazoz. J. Smith orduan eiza-gai gertatu zan. An eta emen odol-ixurtzerai-

ñoko saio askoren ondoren, au jazo zan 1844'ko garagarrillaren 27'an. Igarlea, beste lagun batzuekin, guztiz lotsagarriri, indarrez erailla izan zan Carthage'ko presondegian bertan.

Mormon-taldea etzan origaitik suntsitu. Brigham Young, J. Smith'en ondorengoa, Elizaren amabigarren burua, pragmatiku bat dozu. Arkaitz-mendietan zear urtetea erabagiten dau: mormondarrak, bizi izateko, urrats aundi bat emon bear dabe. Eta, 1846'ko otsaillaren, milla koloreko burdiak, ainbat gauzaz zamaturik, urteten dira erreskadan. Mormondarrak, xispa bizkar gain, izoztiak zearkatzen dabez, Sugar Creek'o ibaia, atzean itxirik euren etxeak eta euren elizak euren arerioak erre dautsezanak. Bost milla ta geiago dira arrotz doozanak, neguak

bilostu dabezan erreka-ondoetan. Ez dakie norantz doozan, zearo tzat. Iñok ez dazau Sarkalde mit lurralde aundi bik zatitua, Kalifonia ta Oregan'ek ain zuzen, Mexiko Laterri Batuak bakotxak beretzat dabezanak. Amazazpi illabete beir bearko dabez Gatz-Zingira Aun eltzeko.

Brigham Young'ek, gidatzaille zarrak, ikerleak bialtzen ditu bidea kutsi dagien, iñundiko biderik ezta oian eta mendietan barrena. Aurre doozanak lurrak ereiten dabez jarra datozenentzat, ur-ontziak eta zub eragirik. Arrotz doozanak armaz orduak dira, taldeetan. Bosteun gizon osotzen dabe "mormon batailloa Mexikotarrakaz gerran eta Kalifonia'n, USA'ko kostaldean orob



Ibillaldi luzea: Mississippi-ibai izoztua igaroten (Christensen-en irudia).

Brigham Young'ek uste dau, eta erra-  
niz, auxe dala biderik bikaiñena ango  
jauriariaren babesa lortu al izateko.

**Arken proba: Gatz-Zingira aundia**

Baiña gosea zan errege txabola ta  
negu-egoitzetan. Gaixoak be, malaria  
ta gairakoak, zabal ebiltzan. Ara ta  
ota erdi-galduta. Taldeetan banatzen  
dira, obe bearrez. Gidaria bera be gai-  
dura, Arkaitz-mendiak igarotean.  
1847'ko garagarrillaren 24'an, Orson  
Pratt'ek eta Erastus Snow'ek mor-  
mondarrak itxaroten daben eremua  
surrez aurre daukie.

Ona zer diñoan Klara Decker,  
Young gidariaren emazteak, ibar bakar  
eguzkiak galdua ikusiaz: "Ni gertu  
nago beste bi milla kilometro egiteko  
be toki onetan geratzekotan". Otzak



Brigham Young, J. Smith igarlearen ondo-  
rengoa, gidatzaille zuurra.

eta goseak zakar astinduta, luzaro, urte  
bian gitxienez ibilli bear izan eben oin-  
diñokarren, baiña azkenez lortu eben  
nai ebena. Eremu zabalean egozan.  
Lanari ekin bear, bakar-bakarrik. Eta  
lanean asi ziran gogotsu, eta lanak di-  
rua dakar, eta diruak etxeak. Inguru-  
mari, konta-ezin-ala egoitza, etxe ta  
aterpe eregi dabez, eremu zabalean.  
Eremu zana lur emokor biurtu dabe.  
Kalea eta uriak lerroz lerro jasoak dira.  
Goraldi ikaragarria agiri jatzu. 1850'ko  
iraillean, beraz, Batzarrak "Utah lu-  
rraldea" sortzeko asmoa artzen dau:  
Brigham Young da bertako lenengo  
jauriaria. Garrantzizko jazoera mor-  
mondar taldearentzat.

Eurok, izan be, eziña egi biurtzen.  
Urikoa naiz baserrikoa, ango bizitza  
goi-goï jaso dabez. Gizona, baiña, in-  
bidiz joa dabilkigu. Or ostera burru-  
kan, 1857'an. Or an kokatu diranak  
aurrean erabilliak. Zer bizkarreratzen  
dautse oraingoz mormondarrai? Beti  
gauza bardiña, poligamia; beti mor-  
mondarrak daben diru-zalekeria: in-  
dioen lurak artu dabezala, ez dabela  
erarik ez legerik errespetatzen. Sala-  
kuntza oneik Washington'etik datoz.  
Dana dela, bake-gozotasunera ordu-  
ko, makiña bat istillu ta ekiñaldi go-  
gor, gaur bakarrik eta biar indioakaz  
alkarturik, jasan bear izan ebezan.  
Mormondarren adiskidea zan Tomas  
L. Kane koronelari esker, bake pizkat  
euki al izan eben Utah'n.

**Gatz-Zingira Uria, eremu gain  
garaitza**

Gatz-Zingirak (Salt Lake) laster




ezagutu eban uri aundi baten garatzea. Sarkalderako bide-kurutzean egokitua, meatz industriak sortu zituan, langilleak eta kanpotar diruak ugari araturik. 1869'an, bultzi-bidezko konpañi bik, Pazifik Batasunak eta Pazifik Erdikoak, leku onen iparraldean alkar artu ebenean, lurralde ontako ekonomiaren iraultza ekarri eben. Gatz-Zingira Uria burdin-galga eder gain joian! Urteera guztiak eukazan eskerrak batez be mormondarren trebetasunari ta komertzi-industri garatzak artez eta ganeraz eroateko entzun bizkor zoliari.

Geure egunotan egiñak, ikus uriko geltoki-buruan Sarkaldeko epopeia margozturik. Geroago, or bertako jau-retxea, erbestetar askok eta askok ikuskatua. Mormondarrak an eskin-

tzen dautzue, izkuntza guztietan, euren Elizaren kondaira. Jarraille ziurak, baiña baita, gogoratzen diranentzat, itortori biurria be. Utah'ko Ikusguaren inguru zabal ederrak zearkatuz, lengo lur-zati idorretan, bizileku ta gainera-ko zer guztiak, ain aundikiro eregi ta eratuak ikusiz, eman oar da bat, mormondar zigortuak lenengotik burutu eben uri bikain atoskorra.

Garagarrillaren 24'an, ara eldu ziran urte-mugan, jai ospetsua egin o dabe. Batzuk aurreko gau osoa dagie bertan lo-sakuetan lo egiñik, goizean goizetik erronkan parte artzeko. Kolorretan marrazten dabez bidaldi luzeak, gogora ekar-azoz, euren bide loratu-ostean, beiñola, eremua euki ebela.



Aundia aunditxo ta txikia txikitxo.

- 
- Mutillak! —iñoan Kerelimo'k lagun artean—. Arramarra ederra izan joat gaur, nere emazteagaz!  
 —Ta nork irabazi jok ba erronkea?  
 —Neuk, kontxo! Gogor asi dok baiña makurtu dok dengani-  
 ñeza! Mututa laga joat.  
 —Ori dok ori Kerolimo! Gizon bat bajaukagu geure artean!  
 Esaiguk: yakin al leitekek zer esan dautsakan ori lortuteko?  
 —Auxe: Beno! Amaitu dira kopla guztiak! Erosi daikezu!